

## **JUDIMENDIKO AUZO KROSA 2026**

### **ARAUDIA**

**Ekintzaren deskribapena:** 2026eko ekainaren 22an, astelehena, arratsaldeko 19:00etan Judimendiko auzo krosa egingo dugu. Kros hau herrikoia eta ez-lehiakorra izango da. Krosa 5km-koa izango da eta ibilbideak auzoan zehar 2,5km inguruko zirkuitu bati bi buelta emango dizkio. Irteera eta helmuga gunea Judimendiko Parkean izango da.

a) 2026/06/22an izango da lasterketa, arratsaldeko 19:00etan hasita. Ekimen honetan edonork parte hartu dezake, aldez aurretik izena emanda. 16 urtetik beherakoek krosean izena eman ahalko dute legezko tutorearen baimen bat sinatuta.

b) Lasterketak 5 kilometro ditu, Judimendiko kaleetan barrena. Irteera eta iritsiera: Judimendiko Parkean.

c) Parte-hartzaileen erregistroa egiteko; hau da, korrikalariak izena emateko sistema online eta aurrez aurrekoa izango da eta 10€ ordaindu beharko dira. Online <https://www.kirolprobak.com/> web orrian eta aurrez aurrekoa egunean bertan soilik. Probaren egunean bertan, 17:00-18:30 bitartean eman ahal izango da izena Judimendiko Parkean. Kasu honetan, ez da bermatzen parte hartzaileak korrikalariaren poltsa izango duenik.

d) Dorsalak ekainaren 22an jasoko dira, astelehena, 17:00-18:45 bitartean Judimendiko Parkean bertan. Dorsala ikusteko moduko leku batean eraman beharko da.

e) Lasterketaren izaera herritarra dela eta, ez da sailkapen ofizialik edota saririk egongo. Horren ordez, parte-hartzaileen artean zozketa ezberdinak egongo dira.

f) Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen lasterketako partaideek eragin ditzakeen kalteak.

g) Antolatzaileek mediku zerbitzua jarriko dute parte hartzaileentzat.

h) Parte hartzaile bakoitzak korrikalariaren poltsa jasoko du.

i) Lasterketa amaieran anoa gunea egongo da.

j) Lasterketan parte hartzeak arautegi hau eta antolatzaileen zein udaltzaingoaren irizpideak onartzea dakar.